EUROREGION
EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN
NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA

2026EKO «EUROESKUALDEKO DOKUMENTAL» SARIA

BALDINTZA-AGIRIA

01 | Xedea 2
02 | Lurralde hautagarriak 3
03 | Gaiak 3
04 | Erakunde onuradunak 4
05 | Zenbatekoa eta finantzazioa 4
06 | Aurkezpena eta egutegia 4
A · Egutegia 4
B · Eskabidea eta dokumentazioa 4
07 | Ebaluazio-prozedura 5
08 | Hautaketa irizpideak 5
A · Aurre-hautaketa fasea 5
B · Pitching fasea 5
C · Irizpideen banaketa eta ebaluazioa 6
09 | Sari-banaketa 6
10 | Komunikazioa 6
11 | Auziak 7
12 | Argibideak eta kontaktua 7

Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea 2011ko abenduaren 12an sortutako Lurralde Lankidetzako Europako Taldea da eta mugaz gaindiko zein Euroeskualdeko lurraldearen garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala sustatzea du helburu, aldi berean, lurralde barruko trukeak sustatuz.

2026eko «Euroeskualdeko Dokumental» Sariaren asmoa Akitania Berriaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean eginiko ikus-entzunezko lankidetza proiektuak sustatzea da. Akitania-Berriko «ALCA» Liburuaren, Zinemaren eta Ikus-entzunezkoen Agentziak, Zineuskadik eta bertako hiru gobernuek osatutako lantalde batek jarri du abian saria.

01 | XEDEA

Dokumentu honek **2026eko «Euroeskualdeko Dokumental» Sariaren** oinarriak zehazten ditu eta **2026eko urtarrilaren 23tik 30ra,** Miarritzen ospatuko da, **FIPADOCaren** esparruan.

Sariak Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko ikus-entzunezkoen sektorea sustatzea du xede, bertako industria, talentua, espazioak, hizkuntza, historia eta beste aktibo batzuk nabarmenduz. Beren balio artistikoaren eta Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearekin duten loturaren arabera ebaluatuko dira proiektuak.

Hauek dira aurreko edizioetako sarien irabazleak:

- 2021: *Entre muros (Horma artean)*, Itziar Mínguezena eta Pedro Fuentesena.
- 2022: *Estaciones de pájaros (Txorien urtaroak)*, Isis Letterierena.
- 2023: *El cuerpo de Cristo (Cristoren gorputza),* Béa Lemarena.
- 2024: La revuelta de las putas, Pablo Iraburu eta Amaia Remírezrena.
- 2025: Altxalilia, Maia Iribarnerena.

Edizio honetan **dokumental proiektu** bat sarituko da.

Sariak 6.000 euroko aurrekontua eta hiru lurraldeetako eragileen babesa du. Zuzkidura osoa LLETen 2026eko aurrekontuan aurreikusita dago.

02 | LURRALDE HAUTAGARRIAK

Euroeskualdeko hiru lurraldeetako bazkideak dira hautagarriak (Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa).



03 | GAIAK

2026ean, **dokumentala** izango da gaia. uzemetraiak, gutxienez 43 minutuko iraupena duten programak eta telesailak aurkeztu daitezke

Aurkeztutako proiektuek, garapen edo ekoizpen fasean egon behar dute. Dirulaguntza jasotzeko aldez aurreko baldintza ez izanik ere, gomendagarria da proiektuek finantzaketa-konpromiso bat izatea edo ekoizpenerako aurrekontu osoaren % 10eko gutxieneko finantzaketa izatea.

Sari honen bidez, Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLETek **elkar ezagutza sustatu eta kultura hedatu** nahi du, horrela, erakundeak beregain hartutako zeharkako erronka horietan

sakonduz. Europako lehentasunen esparruan kokatzen da LLETaren ekimen hau: berdintasuna, garapen jasangarria eta digitalizazioa ardatz dituena.

04 | ERAKUNDE ONURADUNAK

Egoitza soziala edo administrazio nagusia Akitania Berria Eskualdean, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroako Foru Erkidegoan duten eta lanen jabetza intelektualeko eskubideen jabe diren **enpresa produktoreek** parte har dezakete proiektuen deialdi honetan. **Pertsona fisikoak** proiektuen deialdi honetatik **kanpo** geratzen dira.

Aurreko urteetan aurkeztu diren eta irabazi ez duten proiektuek 2026eko edizioan ere aurkez dezakete hautagaitza.

Proiektua hautatua bada, 2026eko urtarilaren 28tik 29era Miarritzen egingo den pitching saiora gutxienez proiektuaren pertsona bat joango dela bermatu beharko dute hautagaiek.

2026eko «Euroeskualdeko Dokumental» sarira aurkeztutako proiektuak egile-eskubideek babestutako edukirik ez duela (aurreko literatura-lanak, irudiak, musika, etab.) bermatu behar du hautagaiak. Horrela ez bada, hautagaiak beharrezko lizentzia, baimen eta lagapen guztiak lortu direla bermatu beharko du.

2026eko «Euroeskualdeko Dokumental» sarian parte hartzeak ez du proiektuaren edo haren zatien gaineko jabetza intelektualeko zein industrialeko eskubideak lagatu direnik esan nahi.

05 | ZENBATEKOA ETA FINANTZAZIOA

Saria 6.000 eurokoa da guztira. FIPADOCeko ekoizpen-foroan pitching-a eginen duten proiektuek FIPADOC-arentzat akredidazio bat eskuratuko dute, proiektuka.

06 | AURKEZPENA ETA EGUTEGIA

A · EGUTEGIA

Hona hemen proiektuen deialdiaren egutegia:

2025eko irailak 25	Proiektuen deialdia irekitzea.
2025eko urriak 13	Proiektuen deialdiaren itxiera.
2025eko urria	Pitch saioetarako proiektuen aurre-hautaketa.
2026eko urtarrilak 28 eta 29	Pitch saioa

Proiektuak Euroeskualdearen web orriaren bidez aurkeztuko dira, 2025eko irailaren 25tik urriaren 13ko 12:00etara bitartean. Ez da onartuko 2025eko urriaren 13ko 12:00etatik aurrera aurkeztutako eskaerarik.

B · ESKABIDEA ETA DOKUMENTAZIOA

Proiektuak formatu elektronikoan aurkeztu beharko dira Euroeskualdearen webgunean (www.euroregion-naen.eu), eskabide elektronikoa betez eta dokumentu hauek erantsiz:

- Euroeskualdeak emandako proiektuaren fitxa
- IFK ziurtagiria

Proiektuak eta **dokumentuak hizkuntza hauetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira: frantsesa, gaztelania, euskara edo ingelesa.** Epaimahaia nazioarteko kideek osatzen dutenez, funtsezkoa da aurkeztutako hizkuntza-bertsioa guztiontzat ulergarria izatea. Zailtasunik izanez gero, jarri harremanetan berehala Euroeskualdearekin, konponbide bat aurkitzeko eta epeak doitzeko. Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak ez ditu bere gain hartzen proiektuaren aurkezpenak sor ditzakeen gastuak.

Proiektuak jasotzeko prozesuaren amaieran, hartu izanaren agiri bat bidaliko da posta elektronikoko mezu gisa. Ez da onartuko paperean aurkeztutako eskabiderik.

07 | EBALUAZIO-PROZEDURA

Deialdira aurkeztutako proiektuen ebaluazioa hainbat fasetan egingo da:

1. Proiektuen eta bazkideen onargarritasun-irizpideak egiaztatzea.
2. Euroeskualdeko ikus-entzunezko lantaldeak hautagaiak aurrez hautatzea.
3. FIPADOCko batzordeak gehienez hiru finalista aukeratuko ditu.
4. FIPADOC ekitaldian pitching saioa eta irabazlearen hautaketa

08 | HAUTAKETA IRIZPIDEAK

A · AURRE-HAUTAKETA FASEA

Euroeskualdeko ikus-entzunezko lantaldeak gehienez **10 proiektu** aukeratuko ditu, egoki aurkeztutako guztien artean. Horretarako kalitate artistikoa, edukiaren berezitasuna, garapen-egoera, produkzio-estrategia eta aurrekontua hartuko dira kontuan.

Gainera, positiboki baloratuko da aurkeztutako proiektuek honako hauek sustatzea:

- Tokiko ekipo teknikoak eta artistikoak kontratatzea.
- Hiru lurraldeetako hizkuntzetako bat erabiltzea (gaztelania, euskara edo frantsesa).
- Hiru eskualdeetako batekin edo batzuekin duen lotura kulturala (pertsonaia ospetsu baten historia, gertaera historiko bat, tokiko industria bat, etab.).

Hautaketa-batzordearen puntuaziorik onenak lortu dituzten proiektuak FIPADOCra bidaliko dira, gehienez 3 finalista zehatz ditzaten. Bere erabakia behin betikoa da.

Aukeratutako zein aukeratu gabeko proiektuen arduradunei jakinaraziko zaie hautaketa-batzordearen erabakia.

B · PITCHING FASEA

Aukeratutako proiektuak FIPADOC foroan aurkeztuko dira profesionalen eta adituen panel batean. Pitch-ak FIPADOC elkarteak zehaztutako baldintzak bete beharko ditu, batez ere formatuari, iraupenari eta edukiari dagokionez. Aurkezpenak inglesez egingo dira.

Proiektuen ordezkariek 2026eko «Euroeskualdeko Dokumental» sariaren aurkezpen-saioan erabiliko den eduki guztia eskaini beharko dute. Eskainitako edukiak (argazkiak, bideoak, webgunea, aurkezpenak, liburuxkak, prospektuak, etab.) adierazitako ezaugarri tekniko guztiak bete behar ditu.

C · IRIZPIDEEN BANAKETA ETA EBALUAZIOA

Oro har, arreta berezia eskainiko zaie hiru lurraldeei eragiten dieten proiektuei.

Aurre-hautapeneko fasean, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Tokiko equipo tekniko eta artistikoak kontratatzea
- Balio artistikoa
- Hiru lurraldeetako hizkuntzetako baten erabilera (gaztelania, euskera edo frantsesa)
- Hiru lurraldeetako batekin edo batzuekin lotutako edukien hedapena (pertsona ospetsu baten historia, gertaera historiko bat, tokiko industria bat, etab.)

Pich-etan arreta berezia jarriko da:

- Balio artistikoa
- Garapen eta bideragarritasun egoera
- Luarraldearen balorazioa
- Aurrekontua
- Pitcharen kalitatea

09 | SARI-BANAKETA

Epaimahaiaren azken erabakia FIPADOC PRO sarien zeremonia ofizialean igagarriko da.

6000€ak ordaintzeko, irabazleak EZARKIN bat edo SEPA formatuko banku-kontuaren ziurtagiri bat (IBAN,BIC) eman beharko du.

Erakunde onuradunak saria eman eta hurrengo urtean Euroeskualdearekin eta bere bazkideekin biltzeko konpromisoa hartuko du, proiektuaren aurrerapenen eta bilakaeraren berri emateko.

10 | KOMUNIKAZIOA

Proiektuan parte hartzen duten bazkideen publizitate eta komunikazio betebeharrak beti bete behar dira. Erakunde onuradunek Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLETen logotipoak eta kofinantziazioaren aipamena gehitu **beharko** dituzte proiektuarekin lotura zuzena duten edozein dokumentutan (gonbidapen-txartela, gutuna, kartela, web orria, liburuxka, etab.).

Hautatutako proiektua gauzatzen bada, honako aipamena egin beharko da: «Proiektu hau 2026eko edizioko Euroeskualdeko Dokumental Sarira aurkeztu da».

Betebehar hori proiektuaren informazio eta komunikazio dokumentu guztietan agertuko da eta proiektua jendaurrean aurkeztean, eta hura abiarazteko zein gauzatzeko antolatutako edozein ekintzetan adieraziko da: prentsaurrekoa, mintegia, ikuskizuna, emanaldia, hitzaldia, etab. Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLETaren logotipoak proiektu-buruaren eta bazkideen webgunean egon beharko du, hala dagokionean.

Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLETak proiektuaren esparruan antolatutako ekitaldi guztietan parte hartu beharko du. Erakundeari idatzizko gonbidapenaren bidez emango zaio ekitaldi bakoitzaren berri, arrazoizko epean.

Proiektuaren amaieran, irabazlea Saria kapitalizatzeko ekitaldietan edota ekimenetan parte hartzera gonbidatu ahal izango da.

FIPADOC-ak, Euroeskualdeak eta hura osatzen duten hiru lurraldeek dute hautatutako proiektuen zerrenda argitaratzeko eta proiektuen sustapen-edukia hainbat komunikabideren bidez zabaltzeko eskubidea. Proiektuaren trailerra, argazkiak edota ikusizko beste edozein material aurkeztean, hautagaiek baimena ematen dute material hori sustapen-helburuetarako erabiltzeko.

Onuradunak proiektuaren aurrerapenaren berri emateko eta txosten tekniko bat aurkezteko konpromisoa hartuko du, saria eman eta 12 hilabetera eta proiektuaren amaieran.

11 | AUZIAK

Arau hauek Frantziako araudiaren arabera ezarri eta interpretatuko dira.

Akordio honen klausulak interpretatzearen edo aplikatzearen ondorioz auziren bat sortzen bada, alderdiak modu adiskidetsuan konpontzen ahaleginduko dira. Adiskidetasunezko akordiorik ez badago, lurralde-jurisdikzio eskudunaren mende jarriko da auzia.

Gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak dokumentu sinesgarritzat hartuko dira.

2026eko «Euroeskualdeko Dokumental» sarirako proiektu bat aurkezteak bere oinarriak onartzea dakar.

12 | ARGIBIDEAK ETA KONTAKTUA

Proiektuen deialdiko dokumentu ofizialak eta hautagaitza prestatzeko beharrezko informazio oro Euroeskualdearen webgunean dago eskuragarri www.euroregion-naen.eu :

Euroeskualdeak ezin du bermatu beste webgune batzuetatik deskargatutako dokumentuen baliozkotasuna.

Deialdiaren arduradunarekin harremanetan jartzeko: marie.heguy-urain@euroregion-naen.eu / +33 6 23 15 95 95